

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Gure robotean honako funtsezko baliabideak izango ditu eta hauek dira:

- Lehenik eta behin baliabide fisikoak ditugu, robota sortzen den enpresan hainbat makina eta teknologia baliabide izango dituzte robota ahalik eta prestatuen eta erabilgarrien izateko. Bertako makinak, azken belaunaldikoak dira, hau da, goi mailako teknologia duen enpresekin bakarrik aritzen gara lanean. Bestetik, gure bulegoan hainbat ordenagailu eta mugikor edukiko ditugu bezeroekin dugun harremana ahalik eta onena na izateko.
- Bestetik, baliabide intelektualak ditugu, robotak gure izena izango du, baita logoa ere. Programatuta egongo da Alzheimerra duen pertsonak zerbait behar duenean laguntzeko, baita ariketak planteatzeko ere. Baita ere, geure web orri pertsonala izango dugu bezeroak ahalik eta informatuen mantentzeko. Gure asmakizuna diseinatzen duten espezialisten eta informatikarien jakinduria oso altua da, hau da, kalitatezkoa et aurreratua.
- Hirugarrenik, giza baliabideak daude, robotak sortzeko enpresan, 50 pertsona arituko dira eta hainbat lan ezberdinetan banatuko dira, adibidez pertsonalizazioan, muntaian eta diseinuan. Bestetik, bulegoan bost pertsona egongo gara bezeroak gurekin kontaktuan egoteko. Gure lan garrantzitsuenetako bat, Alzheimerra duen pertsonak arazo bat badauka eta zer egin ez badaki, robotak seinale bat bidali eta gaixoarekin hitz egiteko aukera emango liguke arazolari aurre egiteko. Arazoa okerrera badoa, espezialistarekin harremanetan jarri eta beraz arduratuko litzateke.
- Azkenik, finantza baliabideak edukiko genituzke, bezeroak, nahi duten moduan ordaintzeko aukera izango dute, bai eskudiaruarekin edota kreditu txartel batekin. Baita ere, hilabetero zati bat ordaintzeko aukera izango dute, beraien egokitasunaren arabera.